

## **Hizkuntza eskakizunen gaineko gogoeta**

### **Abiapuntua**

Tarteko ebaluazioaren datuak jorratu ditugunean, herri administrazioetako langileen hizkuntza eskakizunen gaineko informazioa eman dizuet; nolahi ere, IV. Plangintzaldiko amaierako ebaluazioa egin genuenean, hain zuzen ere azterketa kualitatiboan, beste zenbait gauzaren artean, hizkuntza eskakizunak esleitzeko moduari buruzko gogoeta egitea eskatzen zitzaion Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari.

Era berean, Hizkuntza Eskakizunei buruzko Azterketa Kualitatiboa egin zuen Siadecok 2012-2013an, HPSk enkargatuta, eta azterketa haren berri eman zen Legebiltzarrean, Batzorde honetan bertan. Azterketa hartan, besteak beste, hainbat jarduera-proposamen jaso ziren hizkuntza eskakizunen asignazio irizpideen gainean eta ebaluazio sistemaren gainean.

HPSn kontuan hartzen ditugu, noski, bai aurreko ebaluazioan azaldutako eskaerak, eta baita ere aipatu dudana Hizkuntza Eskakizunei buruzko Azterketa Kualitatiboan jasotzen diren hainbat proposamen. Eta kontuan hartzen ditugu, nola ez, Legebiltzarreko Batzorde honetan bertan hizkuntza eskakizunen egokitasunari buruz hainbat legebiltzarkidek azaldu izan dituen kezak. Guztiak bide bertsutik doazen kezak dira.

Aurkeztu dugun Tarteko Ebaluazioak eskaintzen digun argazkia, ez da argazki txarra, ez da argazki iluna, argazki argitsua da euskararentzako. Administrazioan ere bere lekua egiten eta hartzen jarraitzen duen hizkuntzaren argazkia da. Nota txukuna irabazia dute euskarak eta administrazio ezberdinetako Euskararen Erabilera Planek. Baina jarraitu beharra dago. Aurrera eraginkortasunez jarraitzeko, badugu zer egin eta badugu zer hobetu.

Adibidez, hobetuko dugu ebaluazioa bera, orain arte bezala barruko ebaluazioa izan beharrean, kanpo ebaluazioa izango da etorkizuneko Erabilera

Planen ebaluazioa. Horretarako, erabilera planak kanpoko auditorien zertifikazio sisteman sartuko ditugu, BIKAIN egokituz eta berrituz. Dagoeneko ari gara hori egiten.

Eta hobetu behar dugu hizkuntza eskakizunen asignazio-sistema ere. Hau guztiau zuzen-zuzenean lotzen zaie Erabilera Planei, hizkuntza eskakizunen sistema delako gure sistemaren oinarri nagusietariko bat. Uste dugu, Tarteko Ebaluazio honetatik Azken Ebaluazio arte eta Plangintzaldi berriari hasiera eman arte geratzen den urte eta erdi edo bi urteko tartean egin egin behar dela gogoeta eta analisi partekatua hizkuntza eskakizunen asignaziorako irizpideak baloratu, bateratu eta finkatzeko helburuarekin. Gogoeta bat, hizkuntza eskakizunen sistema gauzatzen den askotariko erakundeetako ordezkariak HAKOBAREN bidez garatuko dutena.

HPSk prestatu du azterketari eta gogoeta partekatuari ekiteko proposamen bat, guztiz irekia, eztabaidarako dokumentu bat. HAKOBak oso egoki eta beharrezkotzat jo du proposamena, eta dagoeneko erabaki du eztabaidari ekitea. Eztabaida eta gogoeta prozesu horretarako lan dokumentua da HPSk prestatu duena, eta ezin aproposagoa uste dut dela Legebiltzarreko agerraldi hau baliatzea, egin dugun hausnarketaren nondik-norakoak legebiltzar-taldeoi aurkezteko, eta gure proposamen zehatza bezain irekia zeuengana ekartzeko.

## **Oraingo egoera**

Gai honen abiapuntuak Euskararen Legean eta Euskal Funtzio Publikoaren Legean dauzkagu. Jakina denez, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetako lanpostu guztiek hizkuntza eskakizun bat daukate, lanpostu horietan jarduteko euskaraz behar den gaitasun mailaren arabera. Gainera, hizkuntza eskakizun hori derrigorrezkoa izan daiteke (beti ere administrazioa kokatuta dagoen lurraldearen egoera soziolinguistikoari begira), eta derrigorrezkoa ez bada, euskararen ezagutza meritu gisa baloratu egin behar da lanpostuak betetzerakoan. Hizkuntza eskakizuna derrigorrez egiaztatu behar denean, baldintza hori bete behar da, bai lanpostuak betetzerakoan, bai lanpostuan jarduterakoan.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio, HPSren proposamenez, hizkuntza eskakizunak zehaztea eta aplikaziorako irizpideak ematea. Baina herri-administrazio bakoitzari dagokio bere lanpostuen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun-datak izendatzea. Horretarako, bere proposamena bidaltzen dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, eta horrek, proposamena aztertuta, horren gaineko txostena egiten du, gehienez ere, hilabeteko epean. Gogoratu txosten hori nahitaezkoa dela, baina ez loteslea; alegia, herri-administrazioak ez daude behartuta bertan jasotzen dena betetzera; behartuta daude, hori bai, HPSren txostena kontuan hartu ez izana arrazoitzera. Azkenean, HPSren txostena jaso ondoren, kasuan kasuko herri-administrazioaren gobernu-organoak erabakitzen du zein hizkuntza eskakizun jarri eta, hala badagokio, zein derrigortasun- data ezarri.

Aspaldi ekin zioten Eusko Jaurlaritzak eta gainerako euskal administrazio publikoek hizkuntza eskakizunak esleitzeko prozesuari. Huts-hutsetik abiatu behar izan zen ezinbestean, eta, oro har, sistemak koherentziari eutsi dio; hau da, hizkuntza eskakizunen esleipenak, oro har, modu egokian egin dira urte hauetan guztietan; nolahi ere, inolako erresebarik gabe esan behar da, tarte honetan, hainbat arrazoi direla medio, besteak beste guztiz berria zelako egin beharreko bidea, eta milaka lanpostuk osatutako unibertsoaz ari garelako, inkoherentzia eta disfuntzio batzuk sortu direla hizkuntza eskakizunen asignazioak egiterakoan. Horri dagokionez, esan beharra dago hori guztiz normala dela, kontuan hartzen badugu zenbat erakunde eta lanposturi buruz ari garen, eta zenbat organo erabaki hartzaile ditugun tartean. Gauzak horrela izanik, gaur egun funtzio komunikatibo bertsuak edo oso antzekoak dituzten lanpostuetan hizkuntza eskakizun bat baino gehiago aurkitu daiteke.

Esate baterako, han eta hemen, unibertsitatean irakasle jarduteko eskatzen den euskara-gaitasun beraren asignazioa duten administrari-laguntzaile postuak aurkitu ditzakegu (3. HE); edo administrariak 4. HErekin, hain zuzen ere itzultzaileei eskatzen zaien mailarekin; edo erdi-mailako teknikariak edo arkitekto teknikoak 2. hizkuntza eskakizunarekin edo arduradun posturen bat 1. arekin. Eta lanpostu berean hiru hizkuntza eskakizun ezberdin.

## **Egin dugun lana**

Arazo horietaz jabeturik, HPSn saiatu gara herri-administrazioetako lanpostuetan esleituta dauden hizkuntza eskakizunen egoera islatzen. Horretarako, ondorengo erakunde hauetako lanpostuak aztertu dira:

- EAEko Administrazio Orokorra
- Udalak, mankomunitateak, kuadrillak
- Foru aldundiak eta batzar nagusiak
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Eusko Legebiltzarra eta Arartekoa
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia
- Lan Harremanen Kontseilua
- Datuak Babesteko Bulegoa
- Haurreskolak Partzuergoa
- Etxepare Institutua
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Erakunde hauek dira 86/1997ko Dekretuaren aplikazio eremua osatzen dutenak, Erabilera Planak egin eta hizkuntza eskakizunen sistemaz baliatzeko obligazioa dutenak alegia. Ikerketa honetarako ez dira kontuan hartu URA Agentziako lanpostuak, erakunde honen lanpostu-zerrenda behin-behinekoa delako. 2015ean eskura zeuden datuak hartu dira kontuan, V. Plangintzaldiaren Tarteko Ebaluazioarekin batera eguneratutakoak alegia. Guztira, 37.493 lanpostu.

Lanpostu horiek guztiak 42 multzotan sailkatu ditugu, funtzio komunikatibo nagusien arabera, ezinezkoa litzatekeelako banan-banan aztertzea, eta seguraski lehen urrats hau emateko alferrikakoa gainera. Jakina, horrek arrisku bat dakar: sailkapen hori eztabaidagarria izatea, berezitasun komunikatiboren bat edo beste ez delako behar den bezala jasota geratu; edozein kasutan ere, guk uste dugu, oro har, sailkapenak balio duela gaiari lehen hurbilpen bat egiteko eta gogoetari bideak zabaltzeko. Irekitzen ari den prozesu baten aurrean gaude, hastapenetan; gerorako

utziko ditugu, beraz, lanpostuz lanpostuko ikerketa zehatzagoak, nahitaez egin beharko direnak, noski.

Lanpostuak sailkatzearekin batera, lanpostu horien funtzio komunikatiboei buruzko hausnarketa egin dugu, izan ere bakoitzari legokiokeen hizkuntza eskakizunaren gaineko proposamena eraman dugu HAKOBARA eta ekarri nahi izan dugu hona, eztabaidari hasiera eman diezaiogun.

## **Proposameneko irizpide nagusiak**

Proposamenaren oinarri-oinarrian, irizpide nagusi bat dago, oro har, eta funtzio komunikatibo espezifikoengatiko salbuespenak salbuespen, errespetatu behar dena, gure ustez: administrazioko lanpostu bat betetzeko edo lanpostu horretan jarduteko eskatzen den gutxieneko euskara gaitasuna izan bedi lanpostu horretarako eskatzen den formazio akademikoa euskaraz osorik edo zati handiengan egiteagatik aitortzen den euskara gaitasun bera<sup>1</sup>. Beste era batera esateko, herritar bati zuzenbidea euskaraz ikasteagatik C1 maila aitortzen bazaio (3. HE), logikoa dirudi Administrazioan ere C1 (3. HE) eskatzeak (ez 4. HE, ez 2. HE). Hori da, gure ustez, errespetatu beharko litzatekeen irizpide nagusia. Nolanahi ere, irizpide nagusia hori izan arren, argi dago salbuespenak egon daitezkeela, lanpostu batzuen funtzio komunikatibo bereziei erreparatzen bazaie behintzat. Adibidez, egunero epaitegietan aritu behar diren auzibideetako abokatuek goi-mailako hizkuntza trebetasunak behar dituzte ahoz eta idatziz, eta kasu horietan, seguruenik justifikatuta legoke C2 (4. HE) .

Jakina, kasu askotan ikasketak euskaraz egin izanak ez dakar, berez eta besterik gabe, administrazio komunikazioetan eskatzen diren hizkuntza gaitasun guztiak menderatzea. Esate baterako, abokatu batek, ondo idazteagatik ere, arazoak izan ditzake hitzarmen bat edo kontratu bat idazteko, sekula ez duelako horrelakorik egin. Hutsune hori betetzera dator hizkuntza prestakuntza, eta horrexegatik ematen zaio halako garrantzia erabilera plan guztietan. Kontua ez da, beraz, hizkuntza eskakizun handiago bat eskatzea, baizik eta prestakuntza iraunkorra antolatzea, hala behar izanez gero, langileak trebatzeko egin behar dituzten zeregin horietarako; izan

---

<sup>1</sup> Ikus 47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-ituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena

ere, kontuan hartu behar da lana euskaraz egiteko gaitasun bikaina erabileraren poderioan eta erabilera hori errazteko hizkuntza-prestakuntza iraunkorra eskuratuz bermatzen dela. Administrazioan euskaraz lan egiteko ohiturarik ezak eta euskararen egoera soziolinguistiko ahulak eragiten dute zuzenean gorabehera honetan, edozein delarik ere hizkuntza eskakizuna.

Euskararen hazkunde demografikoa dator euskara bigarren hizkuntza gisa eskuratu duten euskaldun berrien eskutik. Eta sarri askotan, gure egoera soziolinguistiko desorekatuagatik, euskara ikasi duenak euskara erabiltzeko aukera gutxi izan ohi ditu; eta, arau unibertsala da: hizkuntza bat, oso bereziki bigarren hizkuntza gisa eskuratutako hizkuntza, ez baldin bada erabiltzen, kamustu egiten da. Gure egoera soziolinguistiko desorekatuaren ondorioak ezin dira konpondu gaitasun-maila altuagoak eskatuz; gainera, horrek ez du bermatuko euskara-gaitasunari eustea. Erronka da, erabilera aukerak finkatu eta garatzea. Erabiliz ikasten eta trebatzen da.

Eta ez da egoki ezta ere maila gutxienerako gaitasun batetik behera eskatzea, gutxienerako ezagutzarik gabe ezinezkoa baita erabiltzea.

Hausnarketa honetan, ez dugu bazter utzi nahi Euskara Egiatagiriaren Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak apirilean Legebiltzar honetan bertan aurkeztu zuen txostena. Hain zuzen ere, dokumentu horren laugarren ondorioak hau dio hitzez hitz:

#### **“4.- Trebetasunkako egiaztapena**

*Gaur egun, hizkuntza eskakizun bat bete nahi duenak hizkuntza eskakizun horri dagozkion trebetasun guztiak egiaztatu behar ditu (irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamena); nolana ere, trebetasun komunikatibo horiek askotan ez daude denak maila berean; are gehiago: batzuetan gerta liteke trebetasun bat edo beste beharrezkoak ez izatea lanpostu jakin batean jarduteko...”*

Antzeko proposamenak jasota daude lehen aipatu dugun Siadecok egindako azterlanean eta Erabilera Planen ebaluazioetan ere. Adibideak oso ugariak dira. Har

ditzagun, esaterako, aguazilak, etxeko laguntzaileak, atezainak, begiraleak... Mintzamenean, seguru asko, horiek guztiek 2. HE behar dute; baina, justifikatuta ote dago maila hori bera eskatzea idazmenean? Dantza- irakasle batek 3.HE behar du ahoz, klasean aritzeko; idatziz ez ote da nahikoa 2. HErekin?

Apirilean esandakoa berretsi nahi dugu gaurkoan: gure ustez, argi eta garbi esanda, ateak ireki behar zaizkio trebetasunkako egiaztapenari.

Amaitzeko, azken hausnarketa bat. Zenbait goi mailako lanpostuk, izenez berdinak izan arren, funtzio komunikatibo ezberdinak izan ditzakete administrazioaren tamainaren arabera, eta horrek isla izan dezake hizkuntza eskakizunen esleipenean. Udal idazkari batek, oro har, C1 (3. HE) beharko luke bere lana gauzatu ahal izateko; nolana ere, udalerrri handiko edo hiriburu bateko udal idazkarien kasuan, lanaren zereginak direla-eta, agian egokiagoa litzateke C2 eskatzea (4. HE).

Honaino, gure gogoetak. Hasieran esan bezala, hau eragile interesdunen arteko eztabaidari, kontrasteari eta lanketari ekiteko abiapuntua da; hausnarketa irekia da, beraz. Hizkuntza eskakizunen egokitze bidean, eragile interesdunen parte-hartzea ahalbidetu behar da. Horrela, bada, HAKOBAn aurkeztu genuen ekainaren 2an, eta gaiaren lanketari helduko zaio; gaur zuei aurkezten dizuegu, eta Euskararen Aholku Batzordeari aurkeztuko diogu laster.

Oraingoz, labur bada ere, ikus dezagun prestatu dugun lanpostuen taula, eta lanpostu mota bakoitzarentzat proposatu ditugun hizkuntza eskakizunak.

2016-06-29

Patxi Baztarrika Galparsoro  
Hizkuntza Politikarako sailburuordea